

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Bilboko Udala**

Iragarkia, Bilboko Udalarena, zeinaren bidez argitara ematen baitira Menpekoen 28 plaza (haietako 11 euskarako derrigorrezko 2. hizkuntza-eskakizunarekin) eta 1 desgaitasuna dutenentzako txanda murriztuko, euskarako derrigorrezko 2. hizkuntza-eskakizunarekin, sarrera libreko sistemaz eta lehiaketa-oposizioz jabetzan betetzeko hautaketa-prozesuaren oinarri egokituak eta hautaketa-prozesuaren deialdia bera.

Kultura eta Gobernantza Saileko zinegotzi eskuordeak, alkatearen 2023ko ekainaren 17ko Ebazpenaren bidez eta Tokiko Gobernu Batzarraren 2023ko ekainaren 17ko Erabakiaren bidez eman zaizkion ahalmenak erabiliz, hau xedatu du 2025eko maiatzaren 14ko Ebazpenaren bidez:

«2023ko azaroaren 13ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Menpekoen 17 plaza (talde profesionalen sailkapen taldekoak; euskarako derrigorrezko 2. hizkuntza-eskakizunarekin, 1 desgaitasuna dutenentzako txanda murriztuko eta 2020, 2021, 2022 eta 2023ko ekitaldietako enplegu publikoaren eskaintzakoak) betetzeko hautaketa-prozesuaren deialdia argitaratu zen, eta, 2024ko azaroaren 25eko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, plaza kopurua handitu egin zen, 19 plaza izan arte (euskarako derrigorrezko 2. hizkuntza-eskakizunarekin). Bada, hautaketa-prozesu horri lotuta, hauxe

XEDATZEN DA:

Lehenengoa: 2023 eta 2024ko ekitaldietako lanpostu-zerrendak eta enplegu publikoaren eskaintzak aldatzen dituen Tokiko Gobernu Batzarraren 2025eko apirilaren 16ko Erabakiarekin bat etorritik, oinarri espezifikoak onartu eta hautaketa-prozesurako deialdia egiteko zinegotzi eskuordearen 2023ko urriaren 25eko Ebazpena aldatzea, plazen derrigortasuna aldatzeko soilik; alegia, euskarako derrigorrezko 2. hizkuntza-eskakizuna duten 17 plaza deitu beharrean, 2020, 2021, 2022 eta 2023ko ekitaldietako enplegu publikoaren eskaintzetakoak, 17 plaza deitzea, (haietako 10 euskarako derrigorrezko 2. hizkuntza-eskakizunarekin) eta 1 desgaitasuna dutenentzako txanda murriztuko, euskarako derrigorrezko 2. hizkuntza-eskakizunarekin, 2020, 2021, 2022 eta 2023ko ekitaldietako enplegu publikoaren eskaintzetakoak.

Bigarrena: Era berean, 2024ko ekitaldiko enplegu publikoaren eskaintzari zegozkion plazak handitzeko zinegotzi eskuordearen 2024ko azaroaren 11ko Ebazpena aldatzea, plazen derrigortasuna aldatzeko soilik; alegia, euskarako derrigorrezko 2. hizkuntza-eskakizuna duten plaza 2 gehitu beharrean, euskarako derrigortasun datarik gabeko 2. hizkuntza-eskakizuna duten plaza 2 gehitzea. Beraz, deialdian, guztira, 2020, 2021, 2022, 2023 eta 2024ko ekitaldietako enplegu publikoaren eskaintzei dagozkien menpekoen 19 plaza eskainiko dira, (haietako 10 euskarako derrigorrezko 2. hizkuntza-eskakizunarekin) eta 1 desgaitasuna dutenentzako txanda murriztuko, euskarako derrigorrezko 2. hizkuntza-eskakizunarekin.

Hirugarrena: Deialdiaren oinarriekin bat etorritik, deitutako plazen kopurua handitu ahal izango da, deialdiaren ondoren enplegu publikoaren eskaintzetan onartutako lanpostu hutsen arabera. Hala, 2025eko ekitaldiari dagozkion zuzkidura ekonomikoa duten lanpostu hutsak daudenez eskainita, eta gainditu dutenen zerrenda oraindik ez denez argitaratu, 9 plaza (haietako 1 euskarako derrigorrezko 2. hizkuntza-eskakizunarekin) gehituko zaizkie lehendik zeuden plazei, eta, hortaz, deialdian, guztira, Menpekoen 28 plaza izango dira (haietako 11 euskarako derrigorrezko 2. hizkuntza-eskakizunarekin), 2020, 2021, 2022, 2023, 2024 eta 2025eko ekitaldietako enplegu publikoaren eskaintzetakoak.

Deialdi honetako plazetatik 1 desgaituen txandarako gorde da, euskarazko derrigorrezko 2. hizkuntza-eskakizuneko. Plaza hori betetzeko, baldintza hauek bete behar



dira: %33ko edo hortik gorako desgaitasuna izatea, hautaketa-probak gainditzea eta, eskatzen zaienean, euren desgaitasun-maila egiaztatzea eta desgaitasun hori oztopo ez dela lanpostuko betebeharrak eta eginkizunak betetzeko. Plaza hori betetzen ez bada, ez da txanda irekikoekin batuko.

Laugarrena: 2023 eta 2024ko ekitaldietako lanpostu-zerrendak eta enplegu publikoaren eskaintzak aldatzen dituen Tokiko Gobernu Batzarraren 2025eko apirilaren 16ko Erabakiarekin bat etorritik, aldatzea zinegotzi eskuordearen 2023ko urriaren 25eko Ebazpenaren Seigarren oinarriko "A Oposizio-fasea" apartatua, soilik hirugarren ariketaren (euskara-proba) kalifikazioari dagokionez. Hain zuzen ere, euskara merezimendu gisa baloratuko da, baldin eta izangaiak derrigortasun-datarik gabeko 2. hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuekin lotutako plazetara aurkeztzen badira; izan ere, aldaketa horrek ez du ekarriko neurritz kanpoko alderik beheragoko mailak egiaztatzen dituztenekiko, horiek ere baloratu egiten baitira. Beraz,

—*Apartatu horretan, hau dio:*

"A. Oposizio fasea

Oposizioan 3 (hiru) ariketa egin beharko dira. Horiek guztiak nahitaezkoak eta baztertzailak izango dira.

...

Hirugarren ariketa (euskara proba): nahitaezkoa eta baztertzaila.

...

Ariketa horretan Gai edo Ez Gai kalifikazioa emango da."

—*Baina hau esan behar du:*

"A. Oposizio fasea

Oposizio-fasean hiru ariketa egingo dira: lehenengo biak nahitaezkoak eta baztertzailak izango dira, eta hirugarrena euskarako 2. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzea izango da. Ariketa hau nahitaezkoa eta baztertzaila izango da derrigorrezko 2. hizkuntza-eskakizuna daukaten plazetarako; gainerako plazetarako, borondatezkoa izango da eta ez da baztertzaila izango.

...

Hirugarren ariketa (euskara proba): nahitaezkoa eta baztertzaila izango da euskarako 2. hizkuntza-eskakizuna derrigorrezkoa den plazetan, eta borondatezkoa eta ez-baztertzaila gainerako plazetan.

...

HAEEK emandako 1. hizkuntza-eskakizunaren ziurtagiria edota Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko B-1 maila egiaztatzen duen titulu edo ziurtagiriren bat dutenei, beherago adieraziko den puntuazioa emanaz baloratuko zaie hizkuntza-maila, baldin eta ariketa egin aurretik maila hori dutela egiaztatu badute.

Ariketa honetan, Gai edo Ez Gai kalifikazioa emango da, derrigorrezko 2. hizkuntza-eskakizuna ezarrita duten plazetarako lehiatzen diren hautagaien kasuan.

Gainerako plazen kasuan, ariketa 5,80 (bost eta laurogei) punturekin kalifikatuko da 2. hizkuntza-eskakizuna egiaztatuz gero. HAEEK 1. hizkuntza-eskakizunaren edo Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko B-1 maila egiaztatzen duen titulu edo ziurtagiriren baten bidez emandako ziurtagiriari 2,90 (bi eta laurogeita hamar) puntu emango zaizkio, betiere ariketa hau egin aurretik egiaztatu badira."

Bosgarrena: Ebazpen honen eranskinean jasotzea deialdiaren oinarrien testu kontsolidatua.



Seigarrena: Eskabideak aurkezteko epea 20 egun baliodunekoa izango da, ebazpen hau Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Zazpigarrena: Ebazpen hau argitaratzen den egunera arte aurkeztutako eskaerak baliozkoak izango dira, eta interesdunek aldaketak egin ahal izango dituzte, deialdiaren oinarrietan ezarritako merezimenduak sartuta, eskabideak aurkezteko epea amaitu arte. Tasa ez dute berriz ordaindu beharko, aldez aurretik ordaindu bada.

Zortzigarrena: Ebazpen honen aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa jar dakiok egingitza eman zuen organoari berari hilabete epean, edo zuzenean aurkaratu daiteke administrazioarekiko auzien jurisdikzioan hilabete biko epean, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik aurrera zenbaturik, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112., 123. eta 124. artikuluetan eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46. artikuluan ezarritakoaren arabera.»

Bilbon, 2025eko maiatzaren 14an.—Giza Baliabideak Antolatzeko eta Kudeatzeko Zuzendaria

**ERANSKINA****MENPEKOEN 28 PLAZA JABETZAN BETETZEKO
DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK****Bat. — Deitutako plazak**

Hautaketa-prozesu hau Menpekoen 28 plaza (talde profesionalen sailkapen taldekoak, horietatik 11 euskarako derrigorrezko 2. hizkuntza-eskakizunekoak) jabetzan hornitzeko deitu da eta oinarri espezifikoa hauek eta indarrean dauden oinarri orokorrekin arautuko dute. Plaza horiek lehiaketa-oposizio bidez beteko dira, sarbide irekiko sistema erabiliz, administrazio orokorreko eskalako menpekoen azpieskalan integratuta daude, TP taldeari dagozkion ordainsariak dituzte eta 2020, 2021, 2022, 2023, 2024 eta 2025ko ekitaldietako enplegu publikoaren eskaintzetakoak dira.

Deialdi honetako plazetatik 1 desgaituen txandarako gorde da, euskarazko derrigorrezko 2. hizkuntza-eskakizunekoak. Plaza hori betetzeko, baldintza hauek bete behar dira: %33ko edo hortik gorako desgaitasuna izatea, hautaketa-probak gainditzea eta, eskatzen zaienean, euren desgaitasun-maila egiaztatzea eta desgaitasun hori oztopo ez dela lanpostuko betebeharrak eta eginkizunak betetzeko. Plaza hori betetzen ez bada, ez da txanda irekikoekin batuko.

Bilboko Udalaren plantillako plazak jabetzan betetzeko deialdiaren oinarri orokorretako (2020ko uztailaren 10eko Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, 131. zenbakia) hamaikagarren oinarrian ezarritakoaren arabera, deialdian eskaintako plaza kopurua handitu ahal izango da, betiere deialdi honen ostean onartutako enplegu publikoaren eskaintzetan sartzen diren plaza hutsen arabera. Plaza kopuruaren gehikuntza hori Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, alkate-udalburuaren ebazpen bidez, eta adierazi beharko da zenbat plazak duten hizkuntza-eskakizuna betetzeko derrigortasun-data ezarrita. Edozelan ere, oposizio-fasea eta lehiaketa-fasea amaitu ostean prozesua gainditu duten pertsonen zerrenda argitaratzeko izapidetaren aurretik xedatu beharko da gehikuntza hori.

Bi. — Betekizun espezifikoa

Hautaketa-prozesu honetan parte hartzeko, betekizun hauek bete behar dira:

- a) Espainiako nazionalitatea edukitzea, oinarri orokorretako bosgarren oinarriko lehen puntuan ezarritako baldintzetan (2020ko uztailaren 10eko Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, 131. zenbakia).
- b) Gaitasuna: Bete nahi diren plazaei dagozkien zereginak normaltasunez betetzeko behar den gaitasun funtzionala eta psikofisikoa edukitzea, eta egiaztatzea desgaitasun-maila ez dela oztopo eskaintzen den plazari dagozkien lanpostuaren funtzioak eta zereginak betetzeko. Gaitasun hori Udal Zerbitzu Medikoek egiaztatuko dute, oinarri hauen hamabigarrenean ezarritakoarekin bat etorritik, nahiz eta, lan arriskuen prebentzioari buruz indarrean dauden arauak aintzat hartuz, lanaren ondoriozko arriskuetatik babesteko egokitzapenak egin behar izan.
- c) Adina: hamasei urte beteta edukitzea eta nahitaezko erretiroa hartzeko gehiengo adina ez gainditzea.
- d) Gaikuntza: diziplinazko espediente bidez zerbitzutik kenduta ez egotea, administrazio publikoei edo autonomia-erkidegoetako konstituzio-organoei nahiz estatutu-organoei dagokienez, eta ebazpen judizialaren arabera desgaitasun absoluturik edo berezirik ez izatea, ez enplegu edo kargu publikoak betetzeko, ez funtzionarioen kidegora edo eskalara iristeko.

Beste estatu bateko herritarra izanez gero, ez egotea desgaiturik edo horren egoera baliokidean, eta jaso ez izana diziiplina-zehapenik edo horren baliokiderik, haren estatuan enplegu publikorako sarbidea baldintza beretan eragozten dionik.

- e) Legezko desgaitasun- edo bateraezintasun-kausa baten pean ez egotea; alegia, administrazio publikoaren zerbitzuko langileen bateraezintasunaren arloan inda-



rrean dagoen araudian aurreikusitako artek edozeinen pean ez egotea. Hala ere, hori ez da eragozpen izango, dagoeneko kargu publiko edo jarduera pribatu bateraezin batean arituz gero, araudi horretan aipatutako aukera egiteko eskubidea baliatzeko.

- f) Tasak: azterketa-eskubideagatik indarrean dagoen tasa ordainduta izatea, eska-bideak aurkezteko epearen barruan. Tasa hori dokumentuak egiteko eta emateko zerbitzuaren tasak arautzen dituen Bilboko Udalaren Ordenantza Fiskalean ezarrita dago.
- g) Sexu-delituen ziurtagiri negatiboa izatea, Kode Zibila eta Prozedura Zibilaren Legea partzialki aldatu zituen Adingabearen Babes Juridikoari buruzko urtarilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoaren 13.5 artikulua arabera, Haurrak eta nerabeak babesteko sistemaren aldaketari buruzko uztailaren 28ko 26/2015 Legeak artikulua horri emandako idazketan.

Deialdi honetan parte hartu nahi dutenek eskaerak aurkezteko epea amaitu baino lehen bete beharko dituzte eskaturiko betekizun guztiak. Era berean, gainerako betekizun guztiak bete beharko dituzte hautaketa-prozesuan zehar, izendapena egin arte, gaitasun funtzionalari buruz b) atalean ezarritakoa izan ezik: kasu horretan, Udal Zerbitzu Medikoek egiaztatu beharko dute, izangaia praktikatuko edo karrerako funtzionario izendatu baino lehen.

Hala eta guztiz ere, prozeduraren edozein unetan epaimahaiak jakingo balu izangairen batek ez dituela deialdiko betekizunak betetzen, izangai hori baztertuta geratuko da, entzunaldia egin ondoren, eta, egun berean, epaimahaiak horren berri emango dio hautaketa-prozesurako deialdia egin duen agintariari.

Hiru. — Azterketa-eskubideak

Sei eurokoak (6,00 euro) izango dira.

Kopuru hori ordainketa-pasabidearen bitartez ordaindu daiteke. Pasabide horretara sartzeko eskabide-orria bete behar da web-orri honetan <https://ope.bilbao.eus> Era berean, azterketa-eskubideak ordaintzeko, eskabidearen kopia edo barra-kodea duen ordainagiriaren kopia jaitsi ahal izango da, eta dokumentu horretan adierazitako Bilboko Udalaren entitate kolaboratzaileen edozein bulegotan aurkeztu.

Orobat, bitarteko ez-telematikoen bidez aurkeztutako eskabideen kasuan, posta bidezko igorpenaz ere ordaindu ahal izango da tasa. Posta bidezko igorpena-konturako sarrera Bilboko Udaleko Giza Baliabideak Antolatze eta Kudeatzeko Zuzendaritzari zuzenduko zaio (Venezuela plaza, 2, 5. solairua, 48001-Bilbo). Posta bidezko igorpenaren egiaztagiria oinarri hauetan erantsitako eskari ofizialaren ereduarekin batera aurkeztu beharko da.

Edozelan ere, azterketa-eskubideak eskabideak aurkezteko epearen barruan ordaindu beharko dira.

Lau. — Eskabideak

Eskabideak telematikoki zein paperean aurkeztu ahal izango dira.

Eskabide telematikoen eredu ofizialean aurkeztu beharko dira. Eredua webgunean dago eskuragarri: <https://ope.bilbao.eus>

Eskabide horiek helbide elektroniko horretan bertan zehazten den prozedura elektronikoen bidez aurkeztu beharko dira. Hautaketa-prozesu honetan parte hartzeko eskabidean, zerrenda batean ezarrita eta behar bezala identifikaturik adierazi beharko da betekizunak betetzen direla eta alegatutako merezimenduak egiazkoak direla. Ez da beharrezkoa izango horien egiaztagirien kopia aurkeztea eskaerarekin batera; izan ere, epaimahaiak edo Kultura eta Gobernantza Sailaren Giza Baliabideak Antolatze eta Kudeatzeko Zuzendaritzak eskatzen ditunean egiaztatu beharko dira bai parte hartzeko betekizunak, bai —hala badagokio— alegatutako merezimenduak.

Eskabideak paperean aurkezten badira, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan adierazitako tokietan



aurkeztu ahal izango dira. Horretarako, eskabide-eredu ofiziala erantsi zaie oinarri hauei, eta eskabide-eredu ofizial hori aurkeztu beharko da azterketa-eskubideei dagokien tasa ordaintzeko posta bidezko igorpena-konturako sarreraren egiaztagiriarekin batera.

Eskabidea, tasak ordaindu izanaren agiriarekin batera, 20 (hogei) egun balioduneko epean bete beharko da, deialdi honen iragarkia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita. Ondorio horietarako, igande eta jaiegunez gain, larunbatak ez dira egun balioduntzat hartuko.

Era berean, izangaiek oinarri hauetan eskatutako baldintzak onartzen dituzte, eta, aldi berean, eskabidea formalizatzean, baimena eman ahal izango dute behar den dokumentazioa telematika bidez kontsultatzeko; esaterako, eskakizunetan alegatutako nor-tasun agiria, ezgaitasun, titulu akademiko, hizkuntza-eskakizun, IT txartel, gida baimen eta Administrazio Publikoetan egindako zerbitzuak etab. Horretarako baimena emanez gero, ez dute dokumentazio hori aurkeztu beharko, betiere kontsulta egiteko modurik badago elkarreragingarritasun informatikoaren bidez.

Hautaketa-prozesu honen ondorioz, lan-poltsa bat egingo da, eta haren kudeaketa Bilboko Udalaren lan-poltsak kudeatzeko irizpideen arabera egingo da. Irizpide horiek lan-poltsa egiten den unean indarrean daudenak izango dira, sindikatuarekin negoziatu beharko baitira aldez aurretik. Lan-poltsa hori izaera publikoko beste administrazio edo instituzio batzuen eskura jarri ahal izango da, lehen aipatutako akordioan ezarrita dauden irizpideen arabera.

Oinarri orokorretako hamaikagarrena lan-poltsak eratzeari buruzkoa da (oinarri orokorrak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren: 131. zenbakia, 2020ko uztailaren 10ekoa), eta, bertan ezarritakoaren arabera, izangaiek, hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskabidean, adierazi beharko dute ea baimenik ematen duten ala ez beren datu hauek Administrazio Publikoaren beste erakunde batzuei lagatzeko: izen-abizenak, NANA, helbidea, harremanetarako telefono-zenbakia eta prestakuntza-maila. Datu horiek lagatzearen helburu bakarra izango da erakunde horiek lan-eskaintzak egin ahal izatea, legezko baldintzetan. Izangaiek beren datuak eman ahal izateko baimena beren-beregi ematen ez badute, ulertuko da ez dutela baimenik ematen.

Bost. — Epaimahaia

Indarrean dauden legeetan ezarritakoaren arabera eta Bilboko Udalaren plantillako plazak jabetzan betetzeko oinarri orokorretan ezarritakoaren arabera, Epaimahaian presidentea, idazkari bat, eta, gutxienez, hiru bokal egongo dira. Horien artean, Administrazio Publikoaren Euskal Institutuak izendatutako pertsona bat egongo da, derrigorrez.

Epaimahaia, batez ere, teknikariz osatuko da, eta espezialitate-printzipioa beteko da. Beraz, epaimahaikide guzti-guztiek izan beharko dute deitutako lanpostuetara sartzeko eskatzen den maila akademiko bereko edo goragoko titulua. Gutxienez epaimahaikideen erdiek izan beharko dute titulazio hau: deialdiko plazaren jakintza-arloa zein den, arlo horri berari dagokiona. Sexu bakoitzeko kideek, gutxienez, %40 izan beharko dute, non eta ez den justifikatzen hori ez dela egokia.

Epaimahaian euskararen jakite-maila neurtzeko proba egiteko izendatutako kide bat egongo da, eta euskararen jakite-maila neurtzeko bakarrik izango da, eta lehen aipatutako gainerako kideei erantsiko zaie.

Sei. — Hautaketa-prozedura

Izangaia lehiaketa-oposizioaren bidezko sarrera libreko sistemaz aukeratuko dira. Oposizio-fasean hiru ariketa egingo dira eta lehiaketa-fasean merezimenduak baloratuko dira. Oposizio-fasea egingo da lehenengo. Prozesua osatzeko, praktikaldia egingo da.

Epaimahaiak ariketen ordena aldatu ahalko du, edo haietako batzuk egun bakar batean jarri. Hala eginez gero, aldez aurretik jakinarazi beharko du udal webgunean: <https://ope.bilbao.eus>



Haurdunaldian edo edoskitzaroan daudenek egokitzen materialak eskatu ahal izango dituzte, Langilean Aukeratzeko Sailatalari probak egin baino gutxienez bost egun baliodun lehenago jakinarazita.

Oinarri orokorretan ezarritakoa gorabehera, deialdi honetako behin betiko onarpenaren eta bazterketaren iragarkiaren ondorengo iragarki guztiak Udalaren iragarki-taulan eta <https://ope.bilbao.eus> web-orrian argitaratuko dira.

A. Oposizio-fasea

Oposizioan hiru ariketa egingo dira, lehenengo biak nahitaezkoak eta baztertzailerak izango dira eta hirugarrena euskarako 2. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzea izango da. Ariketa hau nahitaezkoa eta baztertzailerak izango da derrigorrezko 2. hizkuntza-eskakizuna daukaten plazaetarako; gainerako plazaetarako, borondatezkoa izango da eta ez da baztertzailerak izango.

Lehenengo ariketa: nahitaezkoa eta baztertzailerak

Test motako 100 galdera erantzun beharko dira idatziz; galdera horietatik 90 bakarrik ebaluatuko dira, eta beste 10ak erreserbakoak izango dira. Galdera bakoitzean lau erantzun izango dira, eta horietako bat bakarrik izango da zuzena. Galderak epaimahaiak jarriko ditu, eta berak erabakiko du zer denboratan erantzun behar diren.

Galdera horietatik, lehenengo 30 galderak <https://ope.bilbao.eus> udal-webgunean aldez aurretik argitaratutako galdera-sortatik aterako dira. Galdera horiek I. eranskinetako gai zerrendaren I. zatian (1etik 6ra bitarteko gaien zati orokorra) jasotako gaietan oinarrituta daude.

Ebaluatu beharreko gainerako 60 galderak epaimahaiak proposatuko ditu, eta gai zerrendaren II. zatian (zati berezia: 7.-10. gaiak) oinarriturik egongo dira. Ez dira aldez aurretik argitaratuko.

Azkenengo 10 galderak erreserbako galderak dira, eta lehenengo 90 galderetako bat baliogabetzen bada bakarrik hartuko dira kontuan. 91.-100. bitarteko galderak erabili behar badira, zorrotz jarraituko zaio euren hurrenkerari, kontuan izan gabe baliogabetzen den galdera edo galderak gai-zerrendaren zein ataletakoak diren.

Erantzun zuzen bakoitzeko 1 puntu emango da, eta okerreko erantzun bakoitzeko 0,33 puntu kenduko da; beraz, zuzenean lortu ahal izango den gehieneko puntuazioa 90 puntu izango da, eta horrek 20 punturen balioa izango du azken puntuazioan.

Erantzun gabe utzitako galderengatik eta erantzun bi emandako galderengatik ez da punturik kenduko.

Ariketa horri 0,00 (zero) eta 20,00 (hogei) puntu arteko kalifikazioa emango zaio, eta, gutxienez 10,00 (hamar) puntu lortzen ez dituzten izangaiak prozesutik kanpo geratuko dira.

Bigarren ariketa: nahitaezkoa eta baztertzailerak

Ariketa praktikoa izango da. Test motako 50 galdera erantzun beharko dira. Galderetatik 40 bakarrik ebaluatuko dira, eta 10 erreserbakoak izango dira. Galderak lau erantzun izango dituzte eta lau erantzun horietatik bat bakarrik izango da zuzena. Galderak epaimahaiak proposatutako kasu praktikoko bati edo batzuei buruzkoak izango dira, I. eranskinetako gai-zerrendako II. zatiarekin zerikusia dutenak. Epaimahaiak erabakitzen duen gehieneko epean erantzun beharko dira galderak.

Erantzun zuzen bakoitzeko 1 puntu emango da, eta okerreko erantzun bakoitzeko 0,33 puntu kenduko da; beraz, zuzenean lortu ahal izango den gehieneko puntuazioa 40 puntu izango da, eta horrek 20 punturen balioa izango du azken puntuazioan.

Ariketa horri 0,00 (zero) eta 20,00 (hogei) puntu arteko kalifikazioa emango zaio, eta, gutxienez 10,00 (hamar) puntu lortzen ez dituzten izangaiak prozesutik kanpo geratuko dira.



Hirugarren azterketa (euskarako proba)

Nahitaezkoa eta baztertzaila izango da euskarako derrigorrezko 2. hizkuntza-eskakizuna duten plazen kasuan. Gainerakoetan, ostera, borondatezkoa izango da eta ez da baztertzaila izango.

Proba horretan, euskararen 2. hizkuntza-eskakizuna egiaztatu beharko da epaimahaiak erabakitzen duen eran, horretarako Administrazio Publikoaren Euskal Institutuak emandako gidalerroei jarraituz, indarrean dagoen legerian ezarritakoaren arabera.

Honako hauek ez dute ariketa egin beharko: HAEEn 2. hizkuntza-eskakizunaren ziurtagiria edo Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko B-2 jakintza-mailaren titulu edo egiaztagiriren bat daukateneak, eta euskararen hizkuntza-eskakizuna Euskarako Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan egiaztatuta dutenak. Horretarako, parte-hartzaileek baimen espresua eman beharko diote Bilboko Udalari, titulua aipatutako erregistroan egiaztatzeko. Izangaiek ez badute datuak egiaztatzeko baimena ematen, egoki den dokumentazioa aurkeztu beharko dute, epaimahaiak eskatuz gero.

Euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzenetik salbuesteko apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren babespean hizkuntza-eskakizunak egiaztatu nahi dituztenek, berriz, ikasketen ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte, betiere, hori ariketa hau egin aurretik egiaztatu bada.

HAEEn emandako 1. hizkuntza-eskakizunaren ziurtagiria edota Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko B-1 maila egiaztatzen duen titulu edo ziurtagiriren bat dutenei, beharago adieraziko den puntuazioa emanez baloratuko zaie hizkuntza-maila, baldin eta ariketa egin aurretik maila hori dutela egiaztatu badute.

Ariketa honetan, Gai edo Ez Gai kalifikazioa emango da, derrigorrezko 2. hizkuntza-eskakizuna ezarrita duten plazetarako lehiatzen diren hautagaien kasuan.

Gainerako plazen kasuan, ariketa 5,80 (bost eta laurogei) punturekin kalifikatuko da 2. hizkuntza-eskakizuna egiaztatuz gero. HAEEn 1. hizkuntza-eskakizunaren edo Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko B-1 maila egiaztatzen duten titulu edo ziurtagiriren baten bidez emandako ziurtagiriari 2,90 (bi eta laurogeita hamar) puntu emango zaizkio, betiere ariketa hau egin aurretik egiaztatu badira.

Oposizioko gehieneko puntuazioa

Fase honetan, euskarazko azterketa kontuan hartu gabe, gehienez 40,00 (berrogei) puntu atera ahal izango dira.

B. Lehiaketa-Fasea

Oposizio-fasea amaitutakoan lehiaketaren fasea hasiko da, oposizio-fasea gainditu duten izangaiekin. Eskabideak aurkezteko epean aurkeztutako merezimenduak aztertu eta baloratuko dira; epaimahaiak edo Giza Baliabideak Antolatze eta Kudeatzeko Zuzendaritzak Udalaren iragarki-taulan eta web-orrian (<https://ope.bilbao.eus>) argitaratutako iragarkian horretarako emandako epean egiaztatu beharko dira, behar bezala. Merezimenduak oinarri hauetan ezartzen denaren arabera baloratuko dira, eta ezingo da besterik baloratu. Izena emateko eskabidean alegatu ez den merezimendurik ez da baloratuko, espediente pertsonalean ageri badira ere edo dokumentazio hori Bilboko Udalaren esku badago ere. Eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunera arteko merezimenduak bakarrik baloratuko dira.

1. Antzinatasuna

Menpekoaren plazan TP taldean administrazio publikoan emandako zerbitzuak: gehienez, 15,00 (hamabost) puntu (3,00 puntu urteko edo 6 hilabetetik gorako zati bakoitzeko).

Edozelan ere, lanaldi partzialean edo lanaldi murriztuan egindako aldiak lanaldi osoan egindako denboratza hartuko dira.

Era berean, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabeko bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxo-



ren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 21.1.c) artikulua betetzeko, lanbide-esperientziaren ondorioetarako, kontuan hartuko dira honako hauek ere: izangaiak senideak zaintzeko edo genero-indarkeriagatiko eszedentzia-egoeran egon diren denbora, amatasuna eta aitasuna babestea edo bizitza pertsonala, familia eta lana erantzunkidetasunez kontziliatzen laguntzea helburu duten lanaldi-murrizketei edo baimenei egotz dakiekeen denbora, bai eta emakumezko enplegatu publikoek genero-indarkeriagatiko baimenak erabili dituzten denbora ere.

2. Prestakuntza eta hizkuntzak

Atal honetan gehienez 3,00 (hiru) puntu emango dira, zehaztasun honen arabera:

TITULAZIO AKADEMIKOAK

Titulazio akademiko ofizialengatik, administrazio eskudunak balio akademiko ofiziala duten tituluak ematea aitortu dien ikastetxe publiko edo pribaturen batek emandakoak direnean, gehienez ere 3 puntu, era honetara:

- Goi-mailako LHko titulazioak: 2,00 puntu.
- Erdi-mailako LHko titulazioak edo Batxilergoko titulua: 1,50 puntu.
- Oinarrizko LHko titulazioak edo Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH) graduatu titulua: 1,00 puntu.
- Eskola graduatuaren titulazioengatik: 0,50 puntu.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu titulua ez da baloratuko baldin eta Batxilergoko titulua ere alegatzen bada. Eskola graduatuaren titulua ez da baloratuko, DBHko titulua ere alegatzen bada.

Merezimendu gisa aurkeztutako beste goragoko titulazio bat lortzeko behar diren titulazioak ez dira baloratuko eta, batxilergoko titulua ez da inola ere baloratuko, goi mailako LHko tituluren bat ere alegatzen bada.

Lanbide Heziketako tituluetan, familia bakoitzeko titulu bat baino ez da baloratuko. Handiena txikienean aurretik baloratuko da. Batxilergoko edo DBHko graduatuko tituluekin dituzten baliokidetasunak ez dira inola ere baloratuko.

HIZKUNTZAK

Gaztelania ez diren Europar Batasuneko hizkuntza ofizialak jakitea baloratuko da, betiere zehaztutako mailen arabera eta taula honekin bat etorritik:

- A) Hizkuntzen Europako erreferentzi esparru bateratuko B-1 maila: 0,50 (zero koma berrogeita hamar) puntu hizkuntza bakoitzeko.
- B) Hizkuntzen Europako erreferentzi esparru bateratuko B-2 maila: 1,00 (bat)puntu hizkuntza bakoitzeko.

Balio akademikoko tituluak emateko lege-gaitasuna duten hezkuntza eta irakaskuntza zentroek emandako agiri ofizialaren bidez egiaztatuko da.

Nolanahi ere, hizkuntza jakitea merezimendu moduan baloratzeko, hizkuntza horren jakite-maila egiaztatzeko aurkeztu diren tituluetan 4 hizkuntza trebeziak egongo dira jasota (ahozkoaren ulermena, idatzitakoaren ulermena, mintzamina eta idazmena).

Egiaztatzen den hizkuntza bakoitzeko, izangaiak duen jakite-mailarik altuena bakoarik puntuatuko da.

Lehiaketa-faseko gehieneko puntuazioa

Lehiaketa-fasean lor daitezkeen puntuak, guztira, 18,00 (hamazortzi) puntu izango dira, gehienez ere.

Oposizioko azterketak amaitu eta lehiaketako merezimenduak baloratu ondoren, epaimahaiak sailkapenaren hurrenkera ezarriko du, handitik txikira, hautaketa-prozesuaren fase biak batuta.

**Zazpi. — Oposizio- eta lehiaketa-faseen behin betiko kalifikazioa**

Hautaketa-prozesuaosatzen duten ariketa edo/eta merezimenduen kalifikazioa bukatzen denean, epaimahaiak hautatuen zerrenda argitaratuko du. Oposizio-fasea eta lehiaketa-faseko merezimenduen balorazioa gainditu dituzten pertsonen lortutako puntuazioen baturak ezarriko du hurrenkera. Pertsona horien kopurua ez da eskainitako plazen kopurua baino handiagoa izango (Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 78.6 artikulua). Epaimahaiak alkate-udalburuari bidaliko dio zerrenda hori eta izendapenerako proposamena egingo du. Era berean, azken saioko akta bidaliko dio, fase biak gainditu baina plazarik lortu ez dutenen zerrendarekin (hau ere, puntuazioaren arabera). Zerrenda hori plaza lortu dutenen arteko norbait plazaz jabetuko ez balitz erabiliko litzateke bakar-bakarrik, ez beste ezertarako. Zerrenda honetan egoteak ez du beste inolako eskubiderik ematen, oinarri orokorretako hamargarren oinarrian ezarritakoarekin bat etorrira.

Lan-poltsak kudeatzeko udal araudiarekin bat etorrira, oposizio-fasea eta lehiaketa-fasea kalifikatu ondoren, hautaketa-prozesua osorik gainditu ez baina gutxienez ariketa bat gainditu duten pertsonen deialdi egingo zaie, Udalaren iragarki-taulan eta web-orrian iragarkia argitaratuz (<https://ope.bilbao.eus>), lan-poltsan sartzeko eskakizunak eta merezimenduak ziurtatu ditzaten. Behin agiri guztiak egiaztatuta, zerrenda argitaratuko da leku berberetan.

Zortzi. — Agiriak aurkeztea

Oinarri orokorren hamabigarren oinarrian ezarritakoari jarraituko zaio.

Funtzionario izatera iristeko proposatzen diren pertsonen 20 eguneko epea izango dute, gainditu dutenen zerrenda argitaratzen denetik aurrera, Giza Baliabideak Antolatzeko eta Kudeatzeko Zuzendaritzan (Venezuela plaza, 2, 5. solairua) hautaketa-prozesuan parte hartzeko hamabigarren oinarrian eskatutako egiaztagirak aurkezteko.

Izangaiek, edozein administrazio publikotan karrerako funtzionario izanez gero, ez dituzte aurkeztu beharko lehenagoko izendapenerako aurkeztuta dituzten ziurtagiriak. Kasu horietan, zein administrazio publikotan diren funtzionario, hark egindako ziurtagiria aurkeztu beharko dute, funtzionario izatea egiaztatuz, eta, orobat, beren zerbitzu orrietan ageri diren gainerako gorabeherak egiaztatuz.

Adierazitako epearen barruan, eta ezinbesteko kasuetan izan ezik, proposatutako pertsonen ez badute aurkeztu deialdian parte hartzeko eskatzen diren betekizunak eta baldintzak betetzeari buruzko dokumentazioa, edo hura aztertuta edo mediku-azterketatik ondorioztatzen bada ez duela baldintzaren bat edo ez dituela betetzen eskatutako betekizunak, horrek automatikoki utziko du kanpoan, eta ezin izango dira izendatu eta haien jarduketa guztiak baliogabetuta geratuko dira, hargatik eragotzi gabe hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskatzean eginiko faltsutzeagatik izan dezaketen erantzukizuna. Kasu horretan, alkate-udalburuak hautaketa-prozesuko ariketa guztiak gainditu eta aipatutako baliogabetzearen ondorioz deitutako lanpostu-kopuruan sartzen direnen aldeko izendapen-proposamena egingo du.

Bederatzi. — Praktikaldia eta izendapena

Hautaketa-prozesuaren beste fase bat izango da praktikaldia. Bertan izango dira lehiaketa-oposizioaren fasean puntuaziorik onena lortu duten izangaiek; deialdiko plazak bezainbeste izangai izango dira. Giza Baliabideak Antolatzeko eta Kudeatzeko Zuzendaritzak erabakiko du zein sailetan gauzatu behar den fase hori. Gehienez, sei hilabete iraungo du praktikaldiak, eta sasoiz iragarriko dira datak.

Ebaluazio-prozedurak praktikaldian ere jarraituko du, eta hamabost egun naturaletik gorako absentsia justifikatu kasuan baino ez da etengo, berdin dela absentsia justifikatu horiek modu puntualean edo metatuan gertatzen badira. Kasu horretan dagoen pertsonak praktikaldirako erabaki den denbora guztia bete beharko du.

Izangaia ez bada praktikaldia egiten hasten edo ez badu hori gainditzeko, hautaketa-prozesutik baztertuta geratuko da automatikoki eta hautaketa-prozesuan jarraitzeko eskubideak galduko ditu.



Izendatzen diren izangaiak praktiketako funtzionario izango dira, eta eskubidea izango dute udal langileen ordainsariak arautzen dituen erabakian ezarritako ordainsariak jasotzeko. Era berean, alta emango zaie funtzionarioei dagokien Gizarte Segurantzako araubidean.

Egoera horretan iraungo dute izendapen-ebazpenean adierazitako egunean hasi eta lanpostua jabetzan hartu arte, edo praktikaldian deskalifikatu arte.

Izangaia Gai edo Ez Gai kalifikatuko da, eta Gai kalifikazioa lortu beharko da hautaketa-prozesuko fase hori gainditzeko.

Praktikaldi horretan, deitutako plazari dagozkion funtzioak eta zereginak zuzen betetzeko behar diren trebetasunak eta gaitasunak ebaluatuko dira, bai ezagutza teknikoak aplikatzeari dagokionez, bai lanerako gaitasunari, erantzukizunari eta ekimenari dagokienez, bai lantaldeetan integratzeari eta barruko eta kanpoko harremanak egokitzeari dagokienez.

Praktikaldia amaituta, saileko zuzendariak izangai bakoitzaren ahalmenari eta baldintzei buruzko txosten bat egingo du, adieraziz –bere ustez– izangaiak behar den gaitasun-maila lortu duen ala ez. Txosten hori hautaketa-prozesuko epaimahai kalifikatzaileari bidaliko zaio, eta, hark, txostena aztertutik, izangaiak praktikaldia gainditu duen edo ez erabakiko du. Hori egin ondoren, fasea gainditu duten izangaiak izendatzeko proposamena egingo dio epaimahaiak alkate-udalburuari.

Izangaien izendapena bertan behera utzi ahalko da praktikaldiaren edozein unetan, izangaiak gaitasun edo arobetxamendu egokia izan ez badu. Horrela denean, saileko zuzendariak proposamena egingo dio hautaketa-prozesuaren epaimahai kalifikatzaileari, eta, hark, proposamena aztertuta, izendapena bertan behera utzi ala ez erabakiko du. Hori egin ondoren, erabakitakoaren proposamena egingo dio alkate-udalburuari.

Hamar. — Behin betiko izendapena

Behin betiko kalifikazioa eta izangaien lehentasun-ordena ateratzeko, oposizio-aldiko puntuazioari lehiaketako puntuazioa gehituko zaio; hala ere, izendatzeko ezinbestekoa izango da praktikaldian gaitasun-adierazpena lortzea.

Hautaketa-prozesua amaitzen denean, izangaiak hautaketa-prozesuko behin betiko sailkapenean dauden hurrenkeraren arabera hautatuko dira destinoak, zenbat txanda deitu diren, horrenbeste txandatan. Destinoen hautaketa Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 71.4 artikuluan xedatutakoaren arabera egingo da.

Horretarako, prozesua amaitzen denean zerrenda bakarra egingo da eta bertan bilduko dira hautaketa-prozesua gainditu duten izangaiak, lortutako puntuazioaren arabera, zein txandakoak diren kontuan hartu gabe. Zerrenda hori <https://ope.bilbao.eus> webgunean argitaratuko da.

Zerrenda hori behar bezala egiteko, derrigortasun-data igaro gabeko lanposturik egonez gero, euskarako derrigorrezko ariketak gainditu dituztenei emandako gai kalifikazioaren orde, deialdiko oinarri espezifikoetan hizkuntza-eskakizunaren maila bakoitza egiaztatzeagatik ezarritako puntuazioa jarriko da, merezimendua denean.

Gaitasun bera izanik, deitutako plazen kidegoan emakumeen ordezkariak %40 baino txikiagoa bada, lehentasuna emango zaie emakumeei, ez bada beste izangaiak neurri hori ez aplikatzea bidezkotzen duten ezaugarriak dituztela eta ezaugarri horiek sexualitate diskriminaziorik eragiten ez dutela (adibidez, enplegua lortzeko lanpostuan gora egiteko zailtasun bereziak dituzten beste kolektibo batzuetakoak izatea). Hala egingo da Emakumeen eta gizonezkoen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 21.1.a) artikulua xedatutakoa aplikatuta.

Izendapenak interesdunei jakinaraziko zaizkie, eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko iragarki-taulan eta webgunean (<https://ope.bilbao.eus>) argitaratuko dira.

**Hamaika. — Lanpostuaz jabetzea**

Udal organo eskudunak proposamena onartu ondoren, izendatutako izangaiek kargua hartu beharko dute eta Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 62.1.c) artikuluan eskatzen den baldintza bete beharko dute, izendapena jakinarazi eta hurrengo hogeita hamar egunen barruan.

Ezarritako epearen barruan, justifikatzeko moduko arrazoirik gabe lanpostuaz jabetzen ez direnek, karguari uko egin diotela ulertuko da, bazter utziko dira eta bere esku-bide guztiak galduko dituzte. Kasu horretan, alkate-udalburuak praktikaldiko izendapena proposatuko du oposizioko ariketak gainditurik eta oposizio-faseko eta lehiaketa-faseko puntuazioa baturik baloraziorik onena lortu duten izangaien alde, uko horren ondorioz bete gabe geratu diren plaza kopuruan sartzeko, eta, betiere, oinarri hauetako zazpigarrenean ezarritakoaren arabera.

Karrerako funtzionario izendatutako pertsonen lanpostuaz jabetzen diren unean lanpostua erreserbatzeko eskubiderik gabeko eszedentzia eskatzen badute, hutsik uzten dituzten plazak adjudikatu ahalko dira. Horretarako, epaimahai kalifikatzaileak karrerako funtzionarioak izendatzeko egindako proposamen osagarria erabiliko da.

Hamabi. — Aurkabideak

Oinarri hauen aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa jar dakioko Bilboko Uriko Gobernu Batzordeari hilabeteko epean, edo zuzenean aurkaratu daitezke administrazioarekiko auzien jurisdikzioan hilabete biko epean, kasu bietan Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen direnetik aurrera zenbaturik, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112., 123. eta 124. artikuluen arabera eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46. artikuluen arabera.

**I. ERANSKINA****I. ZATIA****ZATI OROKORRA**

1. gaia. Espainiako 1978ko Konstituzioa. Printzipio orokorrak. Oinarrizko eskubide eta betebeharrak.
2. gaia. Euskal Autonomia Estatutua. Euskal Herriaren eskumenak: eskusiboak, legeria garatu eta betearaztekoak, eta betearaztekoak.
3. gaia. Udalerrria. Biztanle kopuru handiko udalerrien udal antolakuntza (7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena: X. titulua).
4. gaia: 11/2022 Legea, abenduaren 1ekoa, Euskal Enplegu Publikoarena. Ordainsari-sistema euskal enplegu publikoan. Euskal enplegatu publikoen eskubideak, eginbeharrak, jokabide-kodea, bateraezintasunak eta erantzukizunak. Diziiplina-araubidea.
5. gaia: 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarritzkoa.
6. gaia. 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena. Bilboko Udalean indarrean dagoen Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Udal Plana.

II. ZATIA**ZATI ESPEZIFIKOA**

7. gaia. 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Lan-arriskuen prebentzioari buruzkoa.
8. gaia. Herritarrekiko komunikazioa eta arreta. (IVAPeko 16., 17., 18. eta 19. gaietan eskuragarri: Eusko Jaurlaritzako Laguntzako Langileen Talde Profesionalaren gaitegia. 2021)
9. gaia. Zaintza, kontrola eta laguntza-lanak. (IVAPeko 20., 21. eta 22. gaietan eskuragarri: Eusko Jaurlaritzako Laguntzako Langileen Talde Profesionalaren gaitegia. 2021)
10. gaia. Korrespondentzia eta paketeak. Biltegiratzea, material-izakinen kontrola eta materialen mugimendua. (IVAPeko 23., 24., 25., 26. eta 27. gaietan eskuragarri: Eusko Jaurlaritzako Laguntzako Langileen Talde Profesionalaren gaitegia. 2021).



Onarpen eskabidea / Solicitud de admisión

1.- Deialdia / Convocatoria

Deialdiaren izena / Nombre Convocatoria: **MENPEKOA - SUBALTERNA/O**Sartzeko sistemak / Sistemas de acceso: Lehiaketa Concurso ☐ Oposizioa Oposición ☐ Oposizio-lehiaketa Concurso-oposición ☐Txanda / Turno: Askea / Libre ☐ Barne sustapena Promoción interna ☐ Desgaitasunen bat duten pertsonak Personas con discapacidad ☐

2.- Norberaren datuak / Datos personales

Lehenengo abizena / Primer apellido		Bigarren abizena / Segundo apellido		Izena / Nombre	
NAN / AIZ / DNI / NIE:		Naziotasuna / Nacionalidad		Jaioteguna / Fecha de Nacimiento:	
				Sexua / Sexo E. / M. ☐ G. / H. ☐	
Telefono finkoa / Teléfono fijo		Telefono mugikorra / Teléfono móvil		Posta elektronikoa / Correo electrónico	

3.- Jakinarazpenetarako helbidea / Domicilio a efectos de notificaciones

Helbidea / Dirección		Ataria Portal		Eskailera Escalera		Solairua Piso		Eskua Mano		Atea Puerta	
PK / CP:		Herria / Localidad		Probintzia / Provincia		Herrialdea / País					

4.- Euskara / Euskera

Profila egiaztatzen dut (jarri "X" dagokion lekuan) / Acredito el perfil (marcar con una "X" el correspondiente)

1 HE / PL1 ☐ 2HE / PL2 ☐ 3HE / PL3 ☐ 4HE / PL4 ☐

Euskara azterketa egitea eskatzen dut / Solicito realizar examen de euskera

1 HE / PL1 ☐ 2HE / PL2 ☐ 3HE / PL3 ☐ 4HE / PL4 ☐

5.- Aukera ezazu oposizioaldia egiteko nahi duzun hizkuntza / Seleccione el idioma en el que desea hacer la fase de oposición.

Euskara / Euskera ☐ Gaztelania / Castellano ☐

6.- Betebeharrak / Requisitos

Deialdian eskatutako titulazioa / Titulación exigida en la convocatoria:

Deialdian eskatutako beste dokumentu batzuk (gidabaimena, sexu delituen ziurtagiri negatiboa eta bestelakoak) / Otros documentos exigidos (permiso de conducir, certificación negativa de delitos sexuales, otros)

Tasak deialdiaren berariarazko oinarrietan xedatutakoaren arabera ordainduko dira.

El abono de las tasas se hará de conformidad con lo dispuesto en las bases específicas de la convocatoria.



7.- Merituak / Méritos

Merituen zerrenda / Relación de méritos

1	
2	
3	
4	
5	
6	
7	
8	
9	
10	
11	
12	
13	
14	
15	

Leku zabalagoa behar izanez gero datu edota informazio gehigarriako, eskabideari gehitutako eranskin batean egin beharko da. En caso de necesitar más espacio para incluir datos o información adicional, deberá hacerse incorporando un anexo a la solicitud.

8.- Kontratazio zerrendetan sartzea / Ingreso en listas o bolsas de contratación

Laukietan BAI ala EZ idatzi / Escriba en los recuadros SÍ ó NO:

	Bilboko Udalean indarrean dauden Oinarri Orokorren arabera, baimena ematen dut nire datuak Administrazio Publikoen beste Erakunde batzuei lagatzeko, lan eskaintzak jasotze aldera. / Autorizo la cesión, a efectos de recibir ofertas de empleo, de mis datos personales a otras Entidades de las Administraciones Públicas, al amparo de lo establecido en las vigentes Bases Generales del Ayuntamiento de Bilbao.
	EZ NAGO AURKA Bilboko Udalak, bide telematikoen bidez, nire eskabidean aipatutako nortasun, ezgaitasun, titulazio akademiko, hizkuntza eskakizun, IT txartel, gidabaimen eta Administrazio Publikoetan egindako zerbitzuak kontsulta eta egiaztatu ditzan, bere izapidetze administratiborako, hauek eskuragarri dauden heinean, eta JAKINAREN GAINEN NAGO. Aurka egin ez gero, dagozkion agiriak erantsi beharko dira, eskatzen diren unean. / QUEDO INFORMADO Y NO ME OPONGO a que el Ayuntamiento de Bilbao consulte y verifique por medios telemáticos los datos de identidad, discapacidad, títulos académicos, perfiles lingüísticos, IT Txartelas, permisos de conducción y servicios prestados en Administraciones Públicas alegados en la solicitud para su tramitación administrativa, en la medida de la disponibilidad de los mismos. En caso de oponerse deberá aportar los documentos acreditativos correspondientes en el momento en el que sea requerido.
	Baimena ematen diot Bilboko Udalarari nire helbide elektronikoa eta telefono mugikorra erabiltzeko hautaketa prozesu honetan egin ditzakeen jakinarazpenetan. Autorizo la utilización de la dirección electrónica y teléfono móvil aportados, para su utilización en las comunicaciones que el Ayuntamiento de Bilbao pueda efectuar en el transcurso del presente proceso selectivo.

Lege-informazioa / Información legal

Behean sinatzen duenak ESKATZEN DU hautaketa-prozesu honetan onartua izatea eta bere erantzukizunaren pean AITORTZEN DU eskabide honetan jasotako datuak egiazkoak direla, eskabidean agertzen diren jarraibideen arabera bete duela eskabidea, deialdia arautzen duten oinarri orokorretan eta oinarri berezietan ezarritako baldintzak betetzen dituela, bere osasun egoerari buruzkoak barne. Halaber, hala eskatzen zaionean, eskabidean jasotako datu guztiak agiri bidez frogatzeko konpromisoa hartzen du. La persona abajo firmante SOLICITA su admisión en el presente proceso selectivo y DECLARA, bajo su responsabilidad, que son ciertos los datos consignados en esta solicitud, que la ha cumplimentado de conformidad con las instrucciones contenidas en la misma y que reúne las condiciones exigidas en las Bases Generales y en las Bases Específicas que rigen la convocatoria, incluidas las que se refieren a su estado de salud, comprometiéndose a probar documentalmente todos los datos que figuran en la solicitud cuando le sean requeridos.

Jarri "X" laukitxoan / Marque con una "X" en el recuadro

	ZINPEAN EDO HITZ EMANDA AITORTZEN DUT / DECLARO BAJO JURAMENTO O PROMETO
--	--

Eskaera hau sinatu baino lehen, irakur ezazu arretaz datuen babesari buruz atzealdean ezarritako informazioa. Antes de firmar esta solicitud, lea atentamente la información sobre protección de datos recogida al reverso.

tokia / lugar urtea / año hilabetea / mes eguna / día

Sinadura / Firma

BILBOKO UDALEKO ALKATE JAUN TXIT GORENA
EXCELENTÍSIMO. SR. ALCALDE DE BILBAO

**DATUEN BABESA**

Honako hau jakinarazten dizut, datuak babesteko indarrean dagoen araudian aurreikusitako ondorioetarako:

Bilboko Udaleko Kultura eta Gobernantzako Zuzendaritza da zure datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna (helbidea: Venezuela plaza, 2, 5. solairua, 48001 Bilbo). Bilboko Udaleko Datuak Babesteko ordezkaria Idazkaritza Teknikoko eta Datuak Babesteko Sailataleko Burutza da. Helbidea: Ernesto Erkoreka plaza 1, 5. solairua, 48007, Bilbo

Zure datuen tratamenduak helburua da aurkeztuko zaren hautaketa-prozesua egoki prestatu eta garatzea, hautaketa-prozesuaren ondorioz sor litekeen lan-poltsa eratu eta kudeatzea, zuk alegatutako tituluak eta, oro har, merezimenduak egiaztatzea eta aurkeztuko zaren plazak betetzeko behar diren betekizun guztiak dituzula egiaztatzea.

Eman dituzun datuak kontserbatuko dira aplikagarriak diren arau-xedapenek hala inposatzen duten bitartean.

DATUEN BABESA: Udalak aplikatu beharreko araudian ezarritako segurtasun-neurriak hartzen ditu datuen osotasuna eta konfidentzialtasuna bermatzeko. Bilboko Udalak egiten dituen datu pertsonalen tratamenduei buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, datuak@bilbao.eus helbide elektronikora jo dezakezu, informazioa eskatzeko, edo, bestela, webgune honetara: <https://www.bilbao.eus/cs/Satellite/transparentia/es/ambitos/el-ayuntamiento/proteccion-de-datos>

Aurreko tratamenduetarako beharrezkoak diren datuak eman ezean, ezin izango duzu hautaketa-prozesuan parte hartu.

Posta elektronikoko helbideari eta telefono-zenbakiei buruzko zure datuak komunikazioak egiteko tratatzeari dagokionez, horretarako berariaz ematen duzun baimena izango da legezko oinarria. Hautaketa-prozesuan parte hartzea eta horren ondorio guztiak ez daude zure posta elektronikoko helbidearen eta zure telefono-zenbakien datuak tratatzeko baimena ematearen mende.

Zure datu pertsonalak (izen-abizenak, NANA, helbidea, harremanetarako telefonoa eta prestakuntza-maila) badaude sor litezkeen lan-poltsetan, helburu bakar honekin laga ahal izango zaizkie beste administrazio publiko batzuei, betiere jasota badago berariaz baimena eman duzula horretarako: lan-eskaintzak egin ahal izatea legez ezarritako terminoetan.

Zeure datuetara irispide izateko, zuzentzeko, ezerezteko, aurka egiteko, mugatzeko eta transferitzeko dituzun eskubideak tratamenduaren arduradunaren aurrean egikaritu ahal izango dituzu. Eskubidea izango duzu, era berean, eskatu zaizun tratamendurako edo tratamenduetarako eman duzun baimena kentzeko, baina horrek ez dio legimitaterik kenduko baimena kendu aurretik eginiko tratamenduari. Era berean, ezin izan badituzu zeure eskubideak egikaritu, erreklamazioa aurkeztu ahal izango duzu datuen babesaren gaian eskuduna den kontrol-agintaritzaren aurrean.

PROTECCIÓN DE DATOS

A los efectos previstos en la normativa vigente en materia de protección de datos, se le informa que:

El responsable del tratamiento de sus datos personales es la Dirección de Recursos Humanos del Área de Cultura y Gobernanza del Ayuntamiento de Bilbao, situada en Plaza Venezuela, nº 2, 5ª planta, 48001 Bilbao.

La Delegada de Protección de Datos del Ayuntamiento de Bilbao es la Jefatura de Subárea de Secretaría Técnica y Protección de Datos con dirección en la Plaza Ernesto Erkoreka, nº 1, 5ª planta, 48007, Bilbao.

Sus datos serán tratados con el fin de preparar y desarrollar correctamente el proceso selectivo al que usted aspira y la constitución y gestión de la bolsa de trabajo que pudiera crearse a resultados del mismo, de verificar los títulos y méritos en general alegados por usted y de acreditar que cuenta con todos los requisitos necesarios para el acceso a las plazas a las que concurre.

Los datos proporcionados se conservarán mientras así lo impongan las disposiciones normativas aplicables.

PROTECCIÓN DE DATOS: El Ayuntamiento adopta las medidas de seguridad establecidas en la normativa aplicable para garantizar la integridad y confidencialidad de los datos. Para más información acerca de los tratamientos de datos personales que realiza el Ayuntamiento de Bilbao puede dirigirse a la dirección de correo electrónico datuak@bilbao.eus solicitando información o bien accediendo a la web <https://www.bilbao.eus/cs/Satellite/transparentia/es/ambitos/el-ayuntamiento/proteccion-de-datos>

De no facilitarse los datos necesarios para los anteriores tratamientos, no será posible la participación en el correspondiente proceso selectivo.

La base legal para el tratamiento de sus datos relativos a dirección de correo electrónico y números de teléfono para comunicaciones es su consentimiento expreso a tal efecto. La participación en el proceso selectivo y todas sus consecuencias no están supeditadas a la prestación de su consentimiento para el tratamiento de los datos relativos a su correo electrónico y sus números de teléfono.

Sus datos personales contenidos en las posibles bolsas de trabajo (nombre y apellidos, D.N.I, domicilio, teléfono de contacto y nivel de formación) serán cedidos, siempre que conste su expreso consentimiento, a otras Administraciones Públicas con la exclusiva finalidad de que les puedan ser realizadas ofertas de empleo en los términos legalmente previstos

Usted podrá ejercer ante el responsable del tratamiento sus derechos de acceso, rectificación, supresión, oposición, limitación del tratamiento y a la portabilidad de sus datos. Asimismo, usted tiene derecho a retirar el consentimiento prestado para el o los tratamientos que así lo hayan requerido, sin que ello obste a la legitimidad del tratamiento realizado previamente a su retirada. De igual modo, usted podrá presentar una reclamación ante la Autoridad de Control en materia de Protección de Datos competente cuando no haya obtenido satisfacción en el ejercicio de sus derechos.